Sutondoan Nati, Bolivia urrunean misiolari
Kale kantalian Mikel Leunda, Udaleko euskara teknikaria

Bilpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
145. alea, 2006ko
abenduaren 8an

Proiektu berriak kiroldegirako

Joane Somarriberen **Plana**

Zurekin elkarlanean
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Euskadiko Kutxarekin etorkizun on bat edukitzea opari bat da.

2006. urtean egindako ekarpen guztiak batuta, opariak jaso ditzakezu, edo bestela, aurtengo berritasun modura, Travel Club Puntuetan horien baliokidea eskuratu. Lehenbailen erreserba itzazu zure ohiko sukursalen edo CLNet-en.
Euskadiko Kutxak erraztu egiten dizu finantzazioa, zure ekarpenak egin ahal izateko eta horrela zure zerga-onurak mantentzeko.

Planetan berriena ezagutu dezazula nahi dugu:
Kudeaketa **Alternatiboko** Plan **Berria**

Zure Ondarea Euskadiko Kutxak dituen Plan guztien artean dibertsifikatzen lagunduko dizun Plan berria, errentagarritasun-aukerarik onenak jaso ditzazun.
Alde horretatik **Kudeaketa Alternatiboko Plan Berriak** edozein ziklo ekonomikotan dauden aukerak atzeman eta horiek aprobetxatzea du helburu.

JON BASAURI

Bakea bedi euskaldunekin

Txiste batzuk, gure lurretatik kanpo kontatzen direnak, euskaldunak burugogorrak garela aditzera ematen dute. Nafarrei eskeinitako batek honela zioen: "nola sartuko dituzu 15 nafar seiscientos baten?", "nola?", "nafarrei: ezetz hamabostok sartu!, esanez". Duela urte batzuk, Londonen nengoela, argentinar batek aurrekoaren antzerako txiste bat kontatu zidan. Protagonista, ordea, "un vasco" zen, argentinar-euskaldun burugogor bat. Kontatzen bukatu zuenean, Marianico el Corto bezala sentidu nintzen, kolpea asimilatu ezinda. Pibe kabroi hura agurtu eta nere onera itzuli nintzenean, euskaldunon izakerari buruzko topiko horren inguruan hausnartzen hasi nintzen : ona ote da burugogor izatea? Gure "identitate kolektiboaren ezaugarri" hori harro sentitzeko modukoa ote da? Eta interesantea?

Pentsatu nuen, sumiso-txepel-apatiko bat izatea baino askoz hobea izango zela burugogorra izatea, burugogorrak, oker ibili arren, baduelako gogoa, energia, indarra eta nortasuna gauzak egiteko. Eta hortan, euskaldunak txapeldun direla iruditzen zait. Zenbat gauza antolatzen den Euskal Herrian burugogorrengatik: kirola, jaiak, politika, dantzak, musika, lana, afariak...herri hau irakiten dago beti. Arazoa agertzen da, burugogorra jasangaitz bihurtzen denean. Pentsa auto bat erosi berri duzula eta 15 nafar bertan sartzen tematzen zaizkizula. Jasanezina eta kaltegarria benetan.

EUSKALDUNON IZAKERARI BURUZKO TOPIKO HORREN INGURUAN HAUSNARTZEN HASI NINTZEN : ONA OTE DA BURUGOGOR IZATEA?

Bizi dugun egoera sozio-politikoan, politikariek etsipenezko mezuak gizarteratzen dituzten honetan, beti kontuan izan behar genituzke burugogor izatearen abantailak eta desabantailak. Esan gabe doa ardura bakarra ez dela euskaldunona; inguruan burugogor petralak dituguna jakinekoa da. Hala ere, gure helburua, herritarrona behintzat, prozesua gure burugogorkeriaz blindatzea izan behar du eta politikariei mezu hori helaraztea; bakean bizi nahi dugula. Hori izango da egin dezakegun gauzarik onena. Haien lana 15 nafarrendako zelako mikrobusa alokatu behar den adostea izango da, zailtasunak zailtasun eta gurpil zulaketak gurpil zulaketa. Bakea bedi zuekin.

pilpilean

Argitaratzailea:
Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behea, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net
Erredakzio burua: Arianne Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla
Publizitatea: Ane Larreategi
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: KOH diseinu grafikoa
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

SORALUZEKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERREPORTAIA

2007an Kiroldegian bi proiektu burutuko dira: Kiroldegi gainean erabilpen askotako gunea egingo dute eta zinea berritu.

Zorion agurrak

Billy Yanguas
Azaruan 28xan
6 urte
Zorionak mutil!
Ondo segi familiaren partetik

Sandra eta Elia
Azaruaren 6xan
Abenduan 2xan
Zorionak!
Etxekoen eta Kokeren partez

Unai Yanguas
Azaruan 26xan
6 urte
Zorionak etorkizuneko pelotari honi!
Familiaren partez

Xabat Deza Idoia Oruesagasti
Abenduan 16xan eta 27xan. 2 eta 3 urte.
Zorionak eta muxu bat!
Segi beti bezela jator eta alai!
Argateko familixian partez.

Jose Manuel Heras Juana Yanguas
Abenduan 11an eta 18xan
36 eta 34 urte
Zorionak!
Plaentxiko motorzale bikote honi

Anjelica Jose
2006ko azaruan 11an ezkondu ziran
Zorionak bikote!

Gutunak

Elkarrizketarako garaia aspalditik heldu zaigu!!

Hainbeste urtetako gatazkaren ondoren, oso preziatua den denbora pasatzen ari da eta ez dut inolako mugimendu positiborik ikusten. Alderantziz, PSOE ezer ez egiteaz harro dagoela dirudi, bere bideoan azaltzen duten bezala. Baina badabiltza zerbaitetan: presoen kondenak luzatu, 2 artikulu idaztearren ia 13 urteko espetxe zigorra ezartzen, dispertsioa mantentzen, presoen eskubideak urratzen...
Aitzakiak jartzen ari dira elkarrizketarako mahaia martxan jartzeko. Mahaia demokratikoa bada, proiektu politiko guztiak defendagarriak izan beharko dira, eta horietaz herritarrei galdetu beharko zaie. Beraz, ezin da aurrez proiektu bat kanpoan utzi. Orduan nola leporatzen diote Iosu Ion Imazek eta PSEko agintariek ezker abertzaleari mahaia martxan jartzeko trabak (exigentzia larregi) jarri izana? Ezin da mahai horretan Ezker Abertzaleak defendatzen duen proiektu politikoaz hitz egin? Euskal herritarrei galdetu behar bazaie, edozein proiektu politiko aukeratzeko eskubidea izan beharko genuke, ezta? Zeren beldur orduan? Euskal herritarren erabakia gustuko ez izateaz? Baina ez da herritarren hitza errespetatzea estatua demokratiko egiten duena?
Konponbidea biktimei barkamena eskatzetik etorriko omen da, baina oraindik gorroto asko dago batetik eta bestetik. Elkarrizketa eta "biktima guztien" aitortzaren garaian gaude; ETAk eragindako biktimak, komisaldegietan tratu txar edo tortura jasan dutenak/dugunok, espetxe politikak eta dispertsioak eragindakoak, GALek eragindakoak...Sufrimendu guzti horiek errealak izanda, noizko guztien aitortza?

Regina Maiztegi Aboitiz

Oposaketak Euskaraz!!

Osakidetzako oposaketak pasatuta, beste behin euskaldunon hizkuntza eskubideak urratu dira. Izan ere, oposaketetan euskara jakitea ez eskatzeaz gain, dagoeneko lanean dauden profesional erdaldunei adin jakin batetik aurrera ez zaie euskara ikastea behartzen (EAE-n euskara ofiziala izanda).
Datuak:
• Bost langile berritik ia lau erdaldunak izango dira.
• 4261 langiletik %20ri soilik eskatuko die euskara jakitea lanpostua lortzeko.
• Gainerako %80ian euskara jakitea meritu hutsa izanen da.

Oposaketa hauetan ateratzen diren mediku, erizain eta langileek osasun etxeak euskalduntzeko bidean ezer gutxi lagunduko dute. Salatzekoa da azterketak gaztelaniaz izanen direla. Guztiz lotsagarria da Inclan jaunaren jarrera ere. Bere esanetan 5 langiletik 1 euskalduna izatea nahikoa eta gehiegi baita.

Azken finean, oposaketak euskaldunon hizkuntza eskubideen urraketa bermatzen dute eta ez gaude hori onartzeko prest. Ez dugu iruzur gehiago onartuko. Hau dela eta, abenduaren 21eko plenoan Soraluzeko EHEk mozioa aurkeztuko du herriko 19 eragile eta herri eskaeran atxikimendua eman ziguten 357 gizabanakoen babesaz. Garrantzitsua deritzogu egoera honen aurrean mobilizatzeari, eta zure babesa ere ongietorria izanen da. Eta gogoratu...

EUSKARARIK GABE, EUSKAL HERRIRIK EZ!!!

Soraluzeko EHE

gazte informazioa

Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lehiaketak

• *Amodio Gutunak* ◦ *Amodio G*
Bergarako Jardun Elkartea.
Amodiozko gutunen XV. Berrigara lehiaketa.
Epea: 2007-01-07
kulturajardun@topagunea.com

• *SMS bidezko maitasun mezuak* *SMS bidezko*
Bergarako Jardun Elkartea.
SMS bidezko V.Maitasun mezuen lehiaketa. Pertsona bakoitzak mezu bakarra.
Mezu bukaeran adina adierazi.
Epea: 2007-01-01etik 15era.
Tel.: 605712469
kulturajardun@topagunea.com

• *Txapen diseinua* ◦ *Txapen diseinua*
Grafix, Errenteria.
Txapen diseinuko lehen nazioarteko "Oarsoaldetxap" lehiaketa. Gaia: "Zer eragiten dizute gabonek?" Mezu bat, testua, sinboloa...38mmko zirkuluan.
Epea: 2006-12-21.
Tel.: 605712469
emaila: grafix@tempografix.com

Ikastaroak

• *Uretako Sorospena* *Uretako Sorospena*
Bizkaiko Gurutze Gorria. 18 urtetik gora eta lehen sorospen titulua eduki. 60 ordu. 2007ko otsailetik martxora bitartean.
Epea: : 2007-02-01
Tfnoa: 94 4238922
emaila: vediar@cruzroja.es

OHARRAK *OHARRAK*

KLASE PARTIKULARRAK

DBHko 3.mailatik aurrerako klaseak emateko norbait behar da. 943 75 24 02

12 IGITAI GALDU DIRA

Urrats Dantza Taldeak 12 igitai galdu ditu. Ezozi Bideko parkean utziak. 605 75 25 33

Kalean, etxean, lantegian, eskolan...berba eta berba jarduten dugu.. Berbetarako laguna zein den edo ze ingurunetan gauden, hizkuntza desberdina erabiltzen da sarritan. Euskara edo gaztelera erabilpena, inguruak mugatzen du gehienetan.

Euskaraz bizi da Soraluze?

Ane Alvarez
12 urte
Ikaslia

Eztakit ba, nik uste herri erdixa baietz, baina bestia... Gainera asko aldatzen da egoeria, nik adibidez gurasuekin erderaz egitten dot.

Hilario Iturbe
86 urte
Erretiratua

Bastante, lehen gehixao egitten bazan be. Nik erdaldunekin bakarrik egitten dot erderaz, gainera hobeto defenditzen naiz nere betiko hizkuntzan, baitta irakurtzeko orduan be.

Valentin Gil
43 urte
Mekanikua

Nahiko euskalduna da bai. Nik, egixa esan, lanian entzuten dot euskera gehixago kalian baino; eta normalian bertan eta umiekin egitten dot euskeraz.

Jesus Maria Ostolaza
62 urte
Erretiratua

Ez osorik, hala be kalian entzuten da. Nik beti egitten dot euskeraz, erderaz entzutiak molestau egitten dosta, nahiz eta irakurri ondiok be erderaz errezago egin.

Loli Oya
35 urte
Langilia

Erdixka, umiak be asko jotzen dabe erderara, nahiz eta guk euskera erabiltzera bultzatu. Ni ulertzeko gai naiz, baina berba egittiak lotsia emoten dosta.

Justi Torrecillas
41 urte
Etxekoandria

Gehixago bizi ahal da. Umiak euren artian bastante egitten dabe, baina nagusixok gutxiago. Nik umiekin egitten dot dakiten gutxixa.

JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82
20590 Soraluze
GIPUZKOA

Elizako obrak ikusteko ateak zabalik izango dira abenduan

Andre Maria elizan egiten ari diren zaharberritze lanak ikusteko bisita gidatuak antolatu dituzte abenduaren 16 eta 17rako. Parrokiako Obra Batzordearen eskutik orain arte egindakoaren berri izan eta obrak ezagutzeko aukera izango du bisitariak. Ordutegia hauxe izango da: abenduaren 16an, 11etatik 11:30etara, eta 16:30etatik 19etara; abenduaren 17an, 11etatik 14etara eta 16:30etatik 19etara.

4. fasearekin dabiltza eta egin beharreko lanen artean, erretaula zaharberritzea, presbiterioa eta eskailerak aldatzea, mamorlezko aldare berria jartzea, zoru berotze bidezko berokuntza instalatzea, eta arku eta kolomak garbitzea daude, besteak beste.



100 URTE ETA GEHIAGO

Elena Lucas, Feliciana Rodriguez eta Margarita Larrañagak 100 (lehenengo biek) eta 103 urte bete dituzte,eta oraindik gazte eta eder daude.Urte askotarako. Zorionak hirurei!

Bidezko merkataritza denda kiroldegian

Urtero moduan Parrokiako Misio Taldeak bidezko merkataritzako denda zabaldu du Kiroldegiko erakusketa gelan. Jateko produktuak, dekoraziokoak, arropak... denetik izango dute aurten ere. Abenduaren 11tik 17ra egongo da zabalik, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara astebarruan, eta 11etatik 13etara asteburuan.

Erasoak Udaletxearen eta PSEren egoitzaren aurka

Azaroko azken asteburuan udaletxeko balkoi nagusiko loreak ontzietatik atera eta lorontzi batzuk balkoitik behera jaurti zituzten. Alkateak Gobernu Batzordean salatu zuen gertatutakoa. PSEek Santa Ana kalean duen egoitzari berriz, pintura bota zioten. Alderdiak berak eta PPk ere adierazpenak egin zituzten gertakari hauek gaitzezteko.

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81

Elkarretaratzea berriz autobus zerbitzu egokiaren alde

Astelehenean kontzentrazio jendetsua egin zen Plaza Barrixan, Soraluzeko Garraio Publikoaren Aldeko Plataformak deituta, herriarentzat autobus zerbitzu egokia eskatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak abenduaren 1ean Debabarreneko Garraio Plana ezartzeko hitza eman bazuen ere, oraindik ez da inolako aldaketarik izan.

Plataformak herriari mobilizazioekin jarraitzeko eskatu dio. Alkateak bere aldetik gestioak egiten jarraituko duela adierazi du bando bidez.

80 lagun 80 urtetik gorakoen egunean

Azaroaren 25ean 80 lagun elkartu ziren 80 urtetik gorako herritarrak egun berezia ospatzeko. Meza entzun ostean, aurreskua eskaini zieten bi dantzarik Plaza Barrixan. Ondoren bazkaria izan zuten Itxaropenan eta bertaratutako adinekoenak omendu zituzten: aurten, Trinidad Larrañaga 93 urterekin eta Inazio Ernabide 89rekin. Lora sorta bana eta oroigarritxo bat emon zieten bakoitzari. Bukatzeko dantzaldia izan zuten.

Elkartasun autobusa Castellora

Azaroaren 26an soraluzetar talde batek martxa antolatu zuen Castelloko espetxera bertan dagoen Pedro Jose Etxeberriari elkartasuna adierazteko. Pedro Josek zigor osoa irailaren 10ean bete zuen eta oraindik preso dute Castelloko espetxean.

Kzguneko ikastaroak

Abenduan Kzgunea asteartetan zabalik egongo da 9etatik 13etara, eta doako ikastaroak eskainiko dituzte:

- Abenduak 5: Asteburu bat Euskal Herrian (gazteleraz)
  11etatik 13etara
- Abenduak 12: Euskara ziberespazioan (euskaraz)
  11etatik 13etara
- Abenduak 19: Aurkitu zure liburua (euskaraz)
  10etatik 11etara
- Abenduak 26: Postal bat bidal ezazu (gazteleraz)
  11etatik 12etara

EHNA tramitatzeko aukera

Euskal Herriko Nortasun Agiria lortzeko, abenduaren 16 eta 17an izango da aukera. Udaletxe azpian postua jarriko da 11etatik 14etara. Eraman beharrekoak: errolda (Udaletxean eskatuta), 3 karneteko argazki eta 15 euro.

PASCUAL CHURRUCA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

SAN ANDRES
Iturgintza
Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak
Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



Soraluzeko Kiroldegiak kirol guneez gain, kulturari ere lekua egiten dio, liburutegia, erakusleta gela, AEK, ludoteka... Datorren urtetik aurrera, aisialdi gunea izango du gaineko aldean eta kultur areto edo antzoki berritua ere bai.

Kiroldegi gaina eta zinea berritzeko proiektuak aurrera doaz

2007 urtearen hasieran ekingo diete Kiroldegiko lanei. Bi proiektu darabiltza Udalak eskuartean; lehenengo, Kiroldegi gaineko proiektuarekin hasiko dira eta geroago zinea konponduko dute. Kudeaketan ez da aldaketarik izango; "Soraluzeko Kirol Elkartea S.L.L."k jarraituko du arduradun izaten.

Erabilpen askotako gunea

Kiroldegiaren goiko aldean egingo duten proiektu berriak aisialdi funtzioa izango du nagusiki. Iker Aldazabal, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotziak azaldu digunez, "Udalak aisialdi gune baten biharra ikusten zebalako planteatu zeban proiektu hau". Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu du kiroldegi gaina estaltzeko eta bertan egingo diren aldaketa lanak egiteko kontratazio espedientea, eta orain lizitazio-prozesuan dago proiektua. 827.818 euroko aurrekontua du eta 100% Aldundiak finantziatuko du. 6 hilabetekoa da lanak burutzeko epea.

"Kiroldegi gaineko proiektuaren 827.818 euroko aurrekontua %100 Aldundiak finantzatuko du."

Zinea edo kultur aretoa

Kiroldegi gaineko lurra konpontzen dutenean ekingo diete zineko lanei, orain itoginak baitaude. Hezetasun arazo larriegatik itxi zen 1999ko otsailean sabaia erori zenean eta datorren urteko udaberrian irekitzea aurrikusten du Udaleko Kultura Zinegotzia den Mirari Olertzak. Oraindik izen berri ofizialik ez du Kiroldegiko zineak, baina zinea baino kultur areto edo herri antzoki funtzioa beteko du. Datorren astean zehaztuko dute aurrekontua. Burutazio epea 2 hilabetekoa izatea espero du Udalak.

KIROLDEGIKO GESTIOAN ALDAKETARIK EZ

Azken urteetan Kiroldegiaren gestioaz arduratu den "Soraluzeko Kirol Elkartea S.L.L." enpresak datorren urtean ere jarraitu egingo du. Enpresak berak jakinarazi du ez duela "behin ere Udal Kiroldegian egiten ari den gestioa uzteko asmorik azaldu" eta barkamena eskatzen die erabiltzaileei sortutako nahasketengatik. Abendua hastearekin bat kontratatutako 5 langileak kaleratu egin zituzten, kontratuaren bukaerarekin. Energia erabilpena ere murriztu egin zuten (uraren erabilpena, ur-berogailua, argindarra...). Hala baina, Egoitz Portu, arduradunetako batek esan digunez, "Udalarekin akordioa lortu dugu. Orain arte bezala jarraituko dugu datorren urtean ere eta kaleratutako langileak pixkanaka bueltatuko dira".



AISIALDIRAKO, KIROLDEGI GAINA

3 eremu izango ditu: haurrentzat, gaztetxoentzat eta nagusientzat

1- Kafetegia eta txikienentzako jolastokia.
2- Gaztetxoentzako jolasgunea aire librean, skate lekuarekin.
3- Estalitako erabilpen askotako gunea jarleku mugikorrekin.
4- Nagusienentzat gimnasia eta bestelako ekintzak egiteko estali gabeko lekua.
5- Igogailua goraino igoko da, oraingoa luzatuta.





KULTUR EKITALDIETARAKO, ZINEA

- Aldapa izango du
- 200 lagunentzat eserleku mugikorrak
- Sarrera arrapala (ranpa) eta 5 eserleku gurpildun aulkidunentzat
- Eszenatoki ostean kamerinoa
- Pantaila eta proiektore berria
- Emergentzia irteera, arrapala eta guzti



Kultur ekintza ugari Gabonetako karpan



Aurtengo gabonetan karpa erraldoi bat jarriko dute Errege-Etxean, herriko taldeek antolatutako ekitaldi kultural anitzei leku egokia emateko. Musika Eskolaren gabonetako kontzertua, Ezoziko Ama Abesbatzarena, Kontrargiren erakusketa, Guraso Elkartearen ekintzak, Olentzeroren etorrera eta Pilpileanen X.urteurreneko ospakizun zabala bertan egingo dira. Abenduaren 19tik urtarrilaren 2a arte egongo da zabalik karpa.

Gaztetxeko hamabostaldi kulturala

Urtero moduan, Gaztetxeak ekitaldi kulturalak antolatu ditu abenduaren erdialdetik urtarrilaren erdialdera. Ekintza guztiak Gaztetxean bertan egingo dira.

- Abenduak **16**: kontzertua
- Abenduak **20**: Konpresa tailarra 18:00etan
- Abenduak **21**: Dokumentala kontsumoaren inguruan
- Abenduan **22**: konpresa tailarra 18:00etan
- Abenduak **23**: trukeazoka eta eskulan erakusketa 12:00etan
- Abenduak **26**: Guatemalari buruzko dokumentala eta hitzaldia 19:00etan
- Abenduak **28**: Pelikulia: "Taxista ful" 19:00etan
- Abenduak **29**: Kontzetua: Mahaster River
- Urtarrilak **5**: Kontzertua: Rockaina / Darling Shoes
- Urtarrilak **6**: Kontzertua: Fly shit / Super Cools
- Urtarrilak **8**: Emakumea eta espetxea 19:00etan
- Urtarrilak **11**: Hitzaldia: 18/98+
- Urtarrilak **12**: Monologoa 19:00etan
- Urtarrilak **13**: Triki-bertso poteoa 18:00etan / Punk kontzertua 23:00etan

Dantza Taldearen 50.urteurreneko ensaioa

Abenduaren 15ean, barixakuan, izango da hurrengo ensaioa. Goiko eskoletan egingo da iluntzeko 7etan. Neska eta mutilen taldeak finkatu, dantzak ensaiatzen jarraitu eta argazki zaharrak jasotzen segiko dute.

Musika Eskolaren gabonetako kontzertua

Abenduaren 20an eskainiko du herriko Musika Eskolak urteroko gabonetako kontzertua. Talde musikal ezberdinek eta bandak gabonetako kantuak eta bestelako obra musikalak joko dituzte. Bukaeran ikasle guztiek batera Adeste fideles abesti ezaguna interpretatuko dute. Iluntzeko 7etan, gabonetako karpan.

Euskararen nazioarteko eguna

Abenduaren 3an ospatu zen nazioarteko euskararen egunа. Soraluzeko Euskal Herrian Euskarazek umeentzako jolasak, eskulanak eta mural margoketa antolatu zituen goizean. Opariak ere jaso zituzten haurrek parte hartzearren.

Bestalde, abenduaren 21ean Udal plenoan EHEn mozio bat eztabaidatuko dute, osasungin-tzan euskarak behar lukeen lekua gaitzat hartuta.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

HNOS. BENITO ANAIAK
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Nati Gallardo Bolivian misiolari

7 urte dira Boliviara joan zela, eta bueltatzeko asmorik ez dauka. Soraluzen dabil azkenaldian, baina laster doa haruntz. El Alto hirian bizi da, 4.300 metrora, herrialdeko hiririk pobreenean, 1.000.000 lagunen artean.

"Egunero errealitate gogorra zapaltzen ahalegintzen gara"

Ze dala eta juan zinan Ameriketara?
Bolivian zeren gure taldekuak laguntza eske diar egin zeben oin 7 urte. Ordura arte sekula planteatu be ez neban egin misiñuetara juaterik, baina esan notsan nere buruari: "pentzatzekua izango da ba, ezta?" Erabakixa hartu eta juan egin nintzan. Eta ez naiz damutzen.

Ze topatu zenduan hara heldutakuan?
Pobreziak inpresiñua egin zostan. Igarri egitten da, ikusi, erropetan, umiak eskian, zapatak garbitzen...Min haundixa egitten dosta oindiokan be. Eta ez dot nahi ohitzerik, sensibilidadia mantentzia nahi dot.

Zentru baten lan egitten dozu. Zein da zuen lana?
Umiak eskoletan matrikulatzen doguz eta komeni jakuen mailara heldu arte laguntza emoten dotsegu ikasketekin. Bertan gosaldu, bazkaldu, dutxatu, ikasi... dana egitten dabe. Baina egoera oso larrixa ez bada, komenigarrixa da eron etxian bizi daittezen.

Irakaskuntzaz gain beste arlo batzuek be lantzen dozuez.
Bai. Egunero errealitate gogorra zapaltzen ahalegintzen gara. Familixekin lan egitten dogu, egoera gogorretan dareneri irtenbidiak bideratzen ahalegintzen. Beti formaziñuan bidetik. Hala ta be emoten dotena baino askoz gehixago jasotzen dot. Gainera, beti ondo sentidu eragitten dotsue.

Laguntzia, solidaritatia, kooperaziñua... Zein da formulia?
Aukerak emotia. Limosnarik ez dabe bihar. Formaziñua, prestakuntzia eta mentalizaziñua dira aurrera egitteko garrantzitsuenak. Saiatzen gara konponbidia emon ordez bidiak zabaltzen.

Ze erakutsi dotsu Boliviak?
Asko. Harreria baloratzen eta erlatibizatzen. Erok itxixak izan arren, beti ondo hartzen zaittue, dana alkarbanatzeko prest egoten dira. Biharragaittik izan leike. Egunian egunekua bizi dabe, ez dake zer pilatu. Ez jatana gustatzen konformismua da. Sufridu egin bihar dabela barneratuta dake. Umiak be onartuta dake sufritzia tokatzen jakuela eta gogorrak izan bihar dirala.

Zela ikusten dozu Evo Moralesen sasoi hau?
Positibua. Oinarrittik datorrena eta ezkertiarra da bera. Petrolixuan eta baliabide naturalen nazionalizaziñuakin askapen mobimentua sortu da. Oin denboria bihar dau, ezin daeta 3 egunian dana konpondu. Gestiñua ona bada, egingo dau aurrera presiño danen gainetik.

"Evo daguanetik, indigenak burua gehixago altzatzen dabe"

Igarrri dozu aldaketarik?
Oin burua altzatu egitten dabe, ez dira hainbeste uzkurtzen, lotsatzen. Poza emoten dosta parlamentuan aymaraz berbetan eron trajiekin ikusten dittutenian.

Ze diñotsa Natik munduari?
Kosmosa guria ez dala konturatu deila, gauzak ez dirala guriak. Zaintzeko, hobetzeko eta gozatzeko dala, baina ez kontsumitzeko.

Judoan 3 urrezko domina herrira

Eibarko XXXV. Nazioarteko Judo Txapelketan Soraluzeko judo taldeak 3 urrezko domina eskuratu zituen. Gotzon Sierra, Aitor Hernandez eta Iban Ayora izan ziren beren kategorietan lehenengo postuan geratu zirenak. Xabier Gilek zilarrezkoa lortu zuen eta brontzezkoak Ibai Tajuelo, Iker Etxabe, Mikel Recio, Ignacio Peñalba eta Ekaitz Garatek.

Mendian federatzeko epea zabalik

Abenduaren 13tik aurrera mendian federatzeko epea zabalduko du Mendi Taldeak. Urtero bezala, Mendi Taldearen lokaletik pasa eta bertan egin ahal izango dira gestio guztiak. Asteazken eta ostegunetan 19etatik 20:30etara egongo dira bertan. Aurtengo epea otsailaren 28an bukatuko da.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

LASKURAIN

• Chafee - Laskurain	22
Berasaluze IX - Goñi III	10

JAUREGI

• Gonzalez - Jauregi	22
Onsalo - Irurita	6

AITOR ATXOTEGI

• Atxotegi - Loiola	22
Lizaso - Txapartegi	11

FUTBOLA

- Sora 0 - Antzuola 3 (erreg.)
  Sailkapenean 3. ak dira
- Eibartarrak 0 - Sora 3 (Jub.)
  Sailkapenean 1.go daude
- Sora 1 - Eibartarrak 9 (kad.)

AGENDA

PELOTA

Abenduan 9xan, 17:30etan, Segundan *Abenduan 9xan,*
- DV torneoko finalerdiak
  Larrañaga - Iza
  Gonzalez - Jauregi

Abenduan 15ian, gabian Segundan *Abenduan 15ian,*
- Gipuzkoako txapelketako finalerdiak
  Atxotegi - Loiola
  Larrañaga - Agirrezabalaga

MENDIA

Abenduan 17xan, Jarindo Gaztaga *Abenduan 17xan,*

Mikel Leunda Udaleko Euskara teknikaria

Ordiziarra da sortzez Mikel Leunda. 37 urteetatik 8 Soraluzeko Udalean daramatza hizkuntza normalkuntza prozesua bideratzen. Euskararen diagnostikoa egiten ahalegindu gara.

Zelako osasuna zeukan euskarak gure herrixan heldu zinanian?
Oinguan aldian ez oso diferentia. Hiztun kopuruak igoeria euki dau, gaztien artian batez be. Euskarak esparru eta maila berrixak irabazi dittu eta euskerian erabileria zabaldu egin da etxietan, gizartian, komunikabidietan, administraziñuan, lan munduan eta abarretan.

Zerk harrittu zinttuan gehixen?
Harrittu baino gehixago, txokau egin nau. Euskalkixaz dihardut. Goierritarra naiz eta han oso bestela egitten dogu berba. Neretako euskalkixa ikastia erronka izan da. Ahalegintzen naiz erabiltzen, oindiok falta nabarmenak dakadazen arren. Amama eibartarra zan eta horrek lagundu dosta zeoze.

Gaur egun zein arlotan dago indartsuen eta zeinetan ahulen?
Nabarmena da aurrerabide haundixa izan dabela euskeriak. Baina, erabileran hazkuntza hori ez da ezagupena adinakua. Gure gizartia benetan elebidun izatia nahi badogu, orduan, derrigorra izango da euskerian erabileran aurrerapauso senduak emoten jarraitzia.

Gaztien artian euskerian erabilera zabaltzeko, ze plan daukazuez?
Adin-tarte zaila da. Umia, koskortu ahala, euskerian gizarte baloriaz konturatzen hasten da. Gaztiak irabazi egin nahi dau, gizarteko parte izan. Euskeriak horretarako balio badotsa euskeraz jarraittuko dau; bestela, alde batera lagako dau. Umien artian eragittia errazagua da, hizkuntzian aukeraketia ez dalako hain arrazionala. Eskoliakin batera badaukagu hizkuntza ohitturetan eragitteko programa bat, baina horretaz gainera ezer gutxi.

"Etorkinak integratzen asmatziak zerikusi haundixa izango dau euskerian normalkuntza prozesuan "

Industrian zela dago egoeria Soraluzen?
Aurten heldu dotsagu arlo horri. Eskualdeko gainontzeko udalekin batera ARDATZA egitasmua jarri dogu martxan. Egitasmo honek enpresetan euskara planak bultzatzia dauka helburu. Enpresa munduan apenas egin da gauza haundirik oin artian eta biharrezkua zan lanian hastia.

Etorkinekin, ume zein nagusi, zela lan egitten dozue?
Etorkinak asko etorri dira azken urtietan eta etortzen jarraittuko dabe. Etorkin horrek integratzen, baitta linguistikoki be, asmatziak zerikusi haundixa izango dau euskerian normalkuntza prozesuan. Geu umiekin gabiz lanian batez be, ikastetxien bittartez, eta nahikua emaitza polittak lortu doguz. Helduen kasuan be egin dogu ahaleginen bat, baina emaitzak ez dira espero ginuan modukuak izan. Beste lehentasun batzuk dakez.

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
Tlf.: 943 75 1324
Mug.: 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

kutxa
gizarte ekintza

Argazki zaharra

Iturria: Lorenzo Oregi

Zubi Nagusixan inauguraziñua

1967ko Santiago egunian, uztailak 25, inauguratu zan Zubi Nagusixa. Herrittar asko inguratu zan ospakizun haundira. Laster hasiko dira zubixa barrizteko lanak.

Lehiaketa

Soziedaderik zaharrena...

Aurreko aleko erantzuna

Alkazar Kultura-Aisialdi Soziedadia da. 1950ian sortu zeben, Kalebarrengo 10.zenbakixan. Obrak egitterakuan arma klase asko topatu ei zittuen, eta hortik izena.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Noiz kaleratu zan Pil-pilean aldizkarixa lehenengoz?

- → 1994an
- → 1996an
- → 1999an

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra
edo e-mail bat bidal ezazu:
pilpilean@euskalnet.net

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

SARIA → Fisioterapia saio bat **Ormazabal** zentroan

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
Arantxa Mendikute
SARIA
Fisioterapia saio bat **Gogortuz** zentroan

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:
- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

TXOKO KAFETEGIA
Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Gabonetako Pil-opariak!

salgai abenduaren 20tik 31ra
Gabonetako karpan

PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua
Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak
Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Juan Mari
Arraindegia
Eguneroko arraina eta konjelatuak
Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

ARRANO tabernia
Telefonoa 75 24 09
" Giro euskalduna eta sanua "
ETORRI ETA GOZATU
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Javier Alonso Zelaieta
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

GABONETAKO KARPIA

Ezoziko Ama
Abebatzan kontzertua

24domeka

23zapatua

Kontrargin argazki
proiekziñua

Olentzero eta Mari Domingi

24domeka

Xiba: Herri Kirolak
umientzat

28eguena

Musika Eskolian kontzertua

20eguaztena 19etan

euskaragaraGARDOfesta

Pil-pileanen X. urteurreneko ospakizunak

Abenduaren 27tik 31ra

Ezer ez ta festa!

Festaren inauguraziñua

27eguaztena

Pil-eguna!

Pil-pileanen ekitaldi nagusixa
Herri bazkarixa
Txarangarekin kalejira

30zapatua

Gaupasa eguna!

Gabon zahar festa

31domeka

Inuxente eguna!

Tapiaren kontzertua

28eguena

Pariak bai eguna!

Urmeneta eta Olariaga
berbetan
Karta txapelketa

29barixakua

GARAGARDO FESTA 5 EGUNETAN!!
PIL-PILEANEN MATERIALA SALGAI!!
+ sagardo kupelak eta jantokia

PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA